Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2006ko ekainaren 23a, 74 zenbakia - Andoainen eta Urnietan doan banatzen da www.aiurri.com

Ikasturte amaierako jaiak Urnietako Egape ikastolan eta Presentación de María ikastetxean

JAIA

Lanbide hastapena, langabezian dauden gazteentzat aukera ona

Eskaintza zabala da: sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa, edergintza, zurgintza...

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Andoaingo, Urnietako eta eskualdeko udalen artean adosturiko lankidetza hitzarmenari esker lortu da.

Usurbilen sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa eta edergintza ikastaroak eskaini ohi dira. Lasarte-Orian, igeltseritza eta teknika berriak, zurgintza eta egurra. Eta Andoainen, berriz, automobilaren karrozeria, galdaragintza eta soldadura.

Andoaingo eta Urnietako hamasei eta hogeita bat urte bitarteko gazteentzat dira tailerrak: DBHko graduatua lortu ez eta langabezian dauden edota lanbide bat ikasi nahi duten gazteentzat zuzenduta.

Ikastaroek bi urteko iraupena dute. Lehenengo ikasturtea (2006/2007) urritik ekaina bitartean eskaintzen da eta oinarrizko formakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dut. Honako alorrak jorratuko dituzte ikasturte horretan: tailerra, lanbide teknologia, oinarrizko heziketa, arlo sozio-laborala, tutoretza eta orientabide indibidualizatua, enpresetara txangoak, kirola eta ekintza osagarriak. Metodologia berezia erabiltzen da, gainera. Ikasleak talde txikietan banatzen dira eta irakaskuntza indibidualizatua jasotzen dute.

Lanik ez eta ikasteko gogorik ez duten ikasleentzat da Lanbide Hastapena.

Ikastaro hauetan, gainera, ikasleei ikasketa arautura itzultzeko bidea zabaltzen zaie, DBH graduatuak eskuratzeko laguntza eskainiz edota lanbide heziketan sartzeko aukera zabalduz.

Graduatua lortu ez eta langabezian dauden edota lanbide bat ikasi nahi duten gazteentzat egokia da Lanbide hastapena

LANA BILATZEKO ERRAZTASUNAK

Lanbide bat ikasteaz gainera, lantegietan praktikak egiteko aukera zabala dute ikasleek. Horren ondorioz, lan-kontratu bat lortzeko erraztasun handiagoa ere bai. Izen emateko epea zabalik dago bi herrietan.

Florentino Ugalde Urnietako alkateari elkarrizketa

Florentino Ugalde.

Eskualdeko ordezkari politikoekin egindako elkarrizketa tartea Urnietako alkatearekin amaitzen da. Florentino Ugalderen aurretik, ordezkari politiko guztiek udalgintzaz jarduteko aukera izan dute. Alkateak agintaldiaren inguruko baloraketa positiboa egin eta arau subsidiarioak onartzeko oposizioaren babesa beharrezkoa dela dio.

Datozen hauteskundeei begira, aurreikuspen onak dituztela dio, "Legealdi honetan lan handia egin dugu".

(2. orrialdean jarraitzen du)

Urnieta
■ Florenntino Ugalderi elkarrizketa Udal agintaldiaren inguruan. **2. or.**

Gehigarriberezia
■ Sanjuanak eta Sanpedroak gure herrietan. **I-XII. or.**

Agenda
■ Ekitaldiak Urnietan. Zorion-agurrak **15. or.**

Azkena
■ Ikasturte amaierako jaiak Urnietako ikastetxeetan. **16. or.**

Hiru sokako minué-aren alde ez dugu lan handirik egin, baina bai zure automobilaren finantzaketaren alde.

Chevrolet Lacetti

Giauto 902 345 225
Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 700 841
Karobi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 885 150
clientes@giauto.es
www.chevrolet.es Chevrolet gehiago da

Lacetti modeloa 1.4 SE 16V (ez da irudiko modelo berbera). Salneurria: 11.974€ (gasolinako *prever* plana eta sustapena barne). Kuotak 1etik 12ra 60 €; 13tik 119ra 140 €. Finantzaturiko zenbateko osoa: 15.999,35 €. TIN %5,35. TAE % 6,03. Irekiera komisioa %2,5 (299,35€). Beste sustapenekin metaezina. Eskaintzak 2006-06-30 arte balio du Penintsulan eta Balearetan. Finantzaketa: Banco de Crédito, S.A. RBE: 1514/06. Kontsumo mistoa (1/100 Km.): 7.1-8.8. CO^2 igorpena (Km./g): 171-210. Hiru urteko bermea edo 100.000 Km-koa, bermeei buruzko 23/2003Legea aplikatzearen kalterik gabe, gehi Chevrolet Servicio 5 kontratuko baldintzen arabera beste bi urte

CHEVROLET

LABURRAK

IGERIKETA IKASTAROA

Udal Kirol arduradunek 5-7 urte bitartekoei zuzendutako igeriketa ikastarorako 30 plaza gehiago eskaintzea erabaki dute. Astegunetan 13:30-14:30 artean irakatsiko den ikastaroan txertatu dira plaza horiek. Kiroldegiko bulegoetan izena eman daiteke. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek 35 euro.

IKASTARO BERRIAK UDAZKENERAKO

2006-2007 denboraldian, aerobic, mantenimendua, fitness, Hirugarren Adinarentzako gimnasia eta tonifikazioarekin lotutako ikastaro eskaintza prestatu dute. Taldea osatzeko gutxienez 15 lagunek izena eman behar dute Udal Kirol bulegoetan. Irailaren 8a baino lehen, argazki eguneratua eta kontu korronteko zenbakia eraman behar dira. Kirol ikasturte berria irailaren 18an hasiko da.

NAFARROARA IRTEERA

Igandean 39 lagunek esku hartu zuten Udaleko Euskara Sailak antolatutako hileroko irteeran. Iparraldeko eta Nafarroako zenbait txoko bisitatu zituzten urnietarrek. Irulegiko bodega bat lehenik. Handik Nafarroa igaro eta Elizondo eta Bertizko lorategiak ezagutzeko parada izan zuten. Hurrengo irteera, datorren uztailaren 16an izango da.

BERGARA, BIGARREN

Mikel Bergara urnietarrak bigarren postua eskuratu zuen joan den asteburuan Bilbon ospatu zen Estatuko Mountain Bike Txapelketan. Master 30 kategoriako podiumean bi galiziarren artean sailkatu zen; Marcos Balbuena irabazlearen eta Jose Manuel Verdía hirugarren sailkatuaren artean. Segundu bateko aldearekin irabazi zion Balbuenak urnietarrari. Bestalde, **Josu Arregi** andoaindarra eta berarekin batera lasterketan atera ziren 51 txirrindularietatik bederatzi bakarrik iritsi ziren helmugara. Egin zuen beroarekin, lasterketa ordua 14:30etan ipintzeak ez zien aurrera egiten utzi. Antolakuntza kaxkarra izan omen zen.

AZKEN TXANPA HARTUZ, UDAL AGINTARIEKIN SOLASEAN

Florentino Ugalde, Urnietako alkatea

Agintaldiaren azken urtean sartuta, Urnietako alkatearen baloraketa bildu du Aiurrik. Arau Subsidiarioak onartzeko asmoa agertu du alkateak, egungo legealdia amaitzear den honetan. Florentino Ugaldek beharrezkotzat jotzen du horiek onartzea, herritarren hainbat eskaerari erantzute aldera.

Legealdia amaitzear da. Zer da baikorki eta ezkorki baloratuko zenukeena?

Florentino Ugalde: Herritarrekin dugun konpromisoaren oinarria gure hauteskunde programa izan da. Horren betetze maila altua izan da hiru urte hauen alde baikorrena; tartean, Haur Eskola berria, zerbitzu berria eskaintzea eragin duen haur eta gazteri teknikariaren kontratazioa, gaztelekuaren birmoldatzea, mugikortasun plana, Agenda 21 martxan jartzea... Zenbait alderdi politikoek izandako jarrera da ezkorki baloratzen duguna. PSE-EEk hasieratik ezezko "politika" egin du. Bere ezgaitasuna dela eta, lan egin baino nahasten saiatu da. Ezker Batua eta PPkoekin nahiz eta guztian ez izan, akordioetara iristen saiatu gara eta batzuetan ere lortu izan dugu.

Zer moduzkoa iruditzen zaizu legealdi honetan, udaleko oposizioak egindako lana?

F.U.: Legealdiaren lehenengo egunetik Udal gobernuko komisioak zinegotzientzat irekiak izan dira, transparentzia eta elkarrizketaren aldeko apostu garbia eginez. Hori ez da inon horrela izaten. Gobernuan ere sartzeko aukera zabaldu genien guztiei. Ezezkoa jaso genuen. Hiru urte hauetan aurrekontuak behin onartu baditugu ere, negoziazio denbora luzeak izan dira hiru alderdiekin. EB eta PPri proposamenaren ia gehiengoa onartu arren, ezezko botoa jasotzen genuen. Aurrekontu Orokorretan kudeaketa baino alderdi politika egin dute. Horrek, adibidez, eguneko zentroko inbertsioaren atzerapena suposatu du.

Legealdiko azken txanpa honetan zein dira Udalak dituen asmoak?

F.U.: Arau Subsidiarioak onartzea. Gure herriaren garapenerako behar beharrezkoak ditugu. Ikastolarako eraikuntza berria, osasun etxea... bezalako zenbait zerbitzu hobetu aurretik, hirigintza alorreko arau berriak behar ditugu.

Florentino Ugalde, Urnietako Udaletxean.

Legealdiaren lehenengo egunetik Udal gobernuko komisioak zinegotzientzat irekiak izan dira, transparentzia eta elkarrizketaren aldeko apostu garbia eginez

Oposizioarekin akordioetara iristea beharrezkoa izango zaizue...

F.U.: Arau Subsidiarioak onartzeko.

2007ko udal hauteskundeei begira, zer nolako aurreikuspenak dituzue?

F.U.: Onak. Legealdi honetan lan handia egin dugu. Hasieran emandako hitza bete dugu. Gure iritzia, gaia polemikoa izan arren, garbi utzi dugu. Herritarrek zuzentasuna eta lana baloratzen dute eta gurea kontuan izango dutela ziur gara.

Arau Subsidiarioak onartzea gure herriaren garapenerako behar beharrezkoa da

Hauteskunde horien ostean, ezker abertzalea udalera itzultzeak zer eragin izan dezake?

F.U.: Oso ona. Urnietarren zati baten hitzak ordezkaritza izango baitu.

Udaletik urnietarren ongizatea hobetzeko behar beste egin dela uste duzu?

F.U.: Legealdi honetan zerbitzu eta programa asko martxan jarri dira. 5.900 biztanle dituen herri bat izanda, Gipuzkoako erreferente ere izan gara zenbaitetan. Urnietarrentzako berrehun etxebizitza tasatu egin dira, ongizatea hobetzeko haurtzaindegi berria, pisu tutelatu berriak, emergentziako apartamenduak, zerbitzua handitzea eragin duen haur eta gazteri teknikariaren kontratazioa plana garatzeko gaztelekuaren birmoldaketa, Agenda 21, ongizateko laguntzen partidak handitzea... Zerrenda luzea da.

Zer hutsune edo behar ditu herriak?

F.U.: Lehen aipatutakoak, nahiz eta bultzatu behar ditugun gehienak gure zuzeneko eskumenak ez izan. Besteak beste, eguneko egoitza, osasun etxe egokia, Ikastolaren Bigarren Hezkuntzako eraikina, alokairuko etxebizitzak eta kiroldegiaren handitzea.

Zeintzuk dira, orokorrean, urnietarrek helarazi dizkizueten eskariak?

F.U.: Lehen aipatutakoak. Horregatik azpimarratu nahiko nuke arau subsidiarioak onartzearen beharra.

Zure ustez, urnietarrek udala gertuko edo urrutiko erakunde gisa ikusten al dute?

F.U.: Udalak asko aldatu dira azken urteotan. Herritarren zerbitzu nagusiak ematen dituztenez, erakunde publiko gertuenean bilakatzen da. Izango dira urruti ikusten dutenak, baina oro har, jende asko hurbiltzen da.



Aiurri

V- Joxe Ramon Karrera, zikiro prestatzailea.

VI-VII- Sanjuanetako egitaraua Andoainen. Sanpedroak Kaletxikin.

VIII- Aspaldiko Sanpedroei begira.

IX- Jexux Mari Irazu.

X- Jaietako egun handian kantu zaharrak gogoratuz.

XII- Sanpedroak Asteasun, egitaraua.

2006

Sanjuanak Sanpedroak

AZKAIN
Motoak

GORA SANTAJUANAK!

- Motorrerako behar duzun guztia
- Motore azterketak
- Mota guztietako Scooterrak
- Salmenta eta konponketak
- Quad ATV modelo guztiak

Prezio interesgarriak

etorri eta proba ezazu!

Ubilluts auzoa, Pol. 56-Nº12 • 20140 Andoain
Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456
www.azkainmoto.com / azkainmoto@azkainmoto.com

Erraldoi eta buruhandien konpartsa, geldirik

DUELA HAMAR URTE ESTREINATU ZEN ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA GELDIRIK DAGO ORAIN.

Aurtengo Sanjuanetan ez ditugu ikusiko Andoaingo erraldoi eta buruhandiak, haien ordez, Nafarroako konpartsa bat etorriko da.

Herriko pertsonaiak irudikatzen dituzten lau erraldoi eta zortzi buruhandi egin ziren, konpartsa polita osatuz. Gaur egun, ordea, ez da konpartsa hori kalean ikusteko aukerarik.

Konpartsa ateratzeko jendea falta zen. "Konpartsa ondo ateratzeko baldintzak ez ziren betetzen jendea falta zelako. Erraldoi bakoitza eramateko hiru pertsona behar dira gutxienez, txandakatuz joateko. Andoainen lau erraldoi eta zortzi buruhandi daude eta konpartsa atera zen azken urtean, zortzi partaide bakarrik izan ziren musikarioz gain. Hasieran, gazte kolektiboak hartu zuen konpartsaren ardura eta bi koadrila ibiltzen ziren, baina pixkanaka jendea atzeratzen joan zen eta azkenik, ez zen nahikoa jende biltzen. Horretan eragin pixka bat ere izan zuen entseguetako tokia aldatzeak, izan ere, Udalak Ama Kandida inguruan dituen tailerrak utzi zizkiguten entseguetarako eta urruti daudenez, gero eta jende gutxiago joaten zen", azaldu du konpartsari laguntzen ibili ohi zen Aitor Sarasola musikariak.

MAILA ONEKO KONPARTSA

"Oso konpartsa polita da Andoaingoa. Oso irudi politak dira eta oso ondo dantza egiten zuten. Maila ona zuen eta estetikoki ere oso polita zen, inguruko politenetakoa. Urte batean Azpeitian egin zen txapelketa batean parte hartu eta irabazi egin zuen Andoaingo konpartsak. Pena bat da horrela galtzen uztea, baina jendea ez dago lanerako prest. Urte batean deialdia luzatu genuen. Tabernetan kartelak jarri genituen, baina ez zen pertsona bakar bat ere animatu. Baldintza horietan ezin zen aurrera jarraitu eta konpartsa bertan behera geratu zen. Duela denbora gutxi izan genuen erraldoiak ateratzeko aukera eta nahiko alferrik galduta daude. Denbora askoan egon dira geldirik eta ondo zaindu gabe. Egoera honi buelta emateko saiakera bat egin beharko litzateke".

> Urte batean Azpeitian egin zen txapelketa batean parte hartu eta irabazi egin zuen Andoaingo konpartsak

Erraldoiek herriko lau pertsonaia irudikatzen dituzte: **Azelaingo señoritoa** eta bere arreba batetik, eta **Juan Legarra** eta bere alaba bestetik. Buruhandiek berriz, ohiko lanbideekin zerikusia duten pertsonaiak irudikatzen dituzte. **Meatzaria, tren geltokiko nagusia, emakume estraperlista, mandazaina, tren makinista, ikazkina** eta **olagizona**. Horiez gain, **Lebiton** pertsonaia mitologikoa ere ikus daiteke konpartsan.

Aurten Nafarroatik etorritako konpartsa bat izango da Sanjuanetan. "Konpartsa hori ikusita jendea animatzea da asmoa, ikusiko dugu eraginik duen edo ez. Badira urte batzuk konpartsa ateratzen ez dela eta zaila izango da berriro dinamika hori sortzea. Urte batean Ordiziako jendea ekarri zen konpartsa mugitzeko, baina hori ez da irtenbidea, jarraipen bat behar da. Beharrezkoa da ahalegina egitea, nahiz eta ez den erraza izango konpartsa berreskuratzea. Pena izango litzateke horrela galtzen uztea".

> Ekainaren 23an beteko dira hamar urte erraldoi eta buruhandien konpartsa estreinatu zela

Ekainaren 23an beteko dira hamar urte erraldoi eta buruhandien konpartsa estreinatu zela. Aurten ez da herriko kaleetan ikusteko aukerarik. Ea datorren urterako konpartsa berreskuratzeko aukerarik dagoen. Berandu baino lehen.

Ontzaren eskutik, Galeper tiraketa

Lehiaketaren nondik norakoak argitu dizkio Aiurriri ekitaldiko arduradun eta ehiztari Joxe Mari Tolosak.

Jose Mari Tolosa Ontza elkarteko kidea.

Iaz hasi zineten lehiaketa antolatzen?

Joxe Mari Tolosa: Elkarteko lagun pare batek beste nonbait ikusi zutenean sortu zen ideia. Arautegia ezagutu asmoz, Federaziora jo genuen.

Zein da jokoaren mekanismoa?

J.M.T.: Ehiztaria dagoen lekutik hogeita zazpi metro ingurura bederatzi kaiola jartzen dira. Kaiola bakoitzean galeperra izaten da. Barruan duen tiratzaile automatiko bati esker, ehiztariak jakin gabe kaioletako bat ireki eta galeperra airera botatzen du. Sei galeper tirokatu behar ditu eta hegaztiek lurreko sare gainera erori behar dute. Jarraian, ehiztariak haiek hartzera joan behar du.

Zer baldintza bete behar dituzte parte hartzaileek?

J.M.T.: Igandean goizeko 09:00etatik 12:00etara izango da izena emateko epea. Eskopeta eta kartutxoak denak berdinak izaten dira. Ehizeko lizentzia eta federazioko txartela aurkeztu eta 15 euro ordaindu behar dira. Kanpotik datozenei galeperrak kobratzen zaizkie, izen-ematea ez. Ondorioz, ez dute saririk jasotzen.

Irabazteko taktikarik ba al da?

J.M.T.: Taktikarik onena, tiro azkarra eta punteria ona izatea da. Adi egon beharra dago. Sei hegaztiak botatzen dituenak irabazten du. Bost bota dituztenak, izen-ematearen ordenaren arabera saritzen dira.

Sailkatuek zer sari jasoko dituzte?

J.M.T.: Irabazleak kopa jasotzen du. Gainerako sailkatuek, urdaiazpikoa, txorizoa edota saltxitxoi loteak irabaz ditzakete. Elkarteko giltzak dituen lehen bi bazkideak ere saritzen dira. Bestalde, ehiztariek galeperrak etxera eraman ditzakete.

Iganderako kinielarik?

J.M.T.: Tiraketako kiniela, futbolekoa egitea baino zailagoa da. Iaz, 56 parte hartzaileetatik hamarrek sei galeperrak bota zituzten. Bost botatakoak, beste hogei bat lagun izan ziren. Herrian dezenteko maila dago.

BIZIKLETA FESTA

Hiru eta hamabi urte arteko haurrentzat.

Ekainak 25, igandea
11:00, Nafarroa plaza

HERRI KIROLAK GOIKOPLAZAN

Iñaki eta Iñaxio Perurena aitasemeak harria jasotzen arituko dira eta ondoren, barrenatzaileen lana bertatik-bertara ikusteko aukera izango da.

Ekainak 24, larunbata
17:30

DANTZA, TRADIZIOA

Alkatearen eta udalbatzaren soka- dantza izango da ikusgai iluntzean. Ondoren, dultzaineroen kalejirak Goikoplaza ingurua alaituko du eta jarraian, txistulariek San Juan zortzikoa joko dute festara gonbidatuz.

Ekainak 23, ostirala
20:15

Musika Eskolakoen kontzertua igandean

ANDOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEK MUSIKA TRESNAK FINDU DITUZTE URTEAN ZEHAR.

Beatles, Ken Zazpi edo Mago de Oz musika taldeek hain ezagun egin dituzten abestiak joko dituzte.

Gogor entseatu dute eta jada, haien lana taularatzeko prest dira. Horren emaitza igande honetan ikusi ahal izango dugu: konboen kontzertuan. Parte hartzaileak lau taldetan banatu eta irakasle baten gidaritzapean, **Beatles, Ken Zazpi** edo **Mago de Oz** musika taldeek hain ezagun egin dituzten abestiak joko dituzte. Rock, blues, ska, jazz edota reggae estiloek tartea izango dute haien musika errepertorio zabalean.

Hartara, ikasleek urtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute. Parte hartzaileentzat haien jardunean motibatzeko modu bat da. Haien lana jendaurrean aurkezteko aukera paregabea.

Musika Eskolatik, musika modernoa eta abestiak ezagunak izateak hainbat ikasle erakartzen dituela diote. Baina abestu edota bateria eta baxua jotzeko jende falta sumatzen dute. Horregatik, datorren urterako izena ematera dei egiten dute.

Hitzordua Nafarroa plazan, igande gauean. Hauek dira, talde bakoitzeko partaideak, joko dituzten musika instrumentuak eta abestiak:

PARTAIDEAK - MUSIKA INSTRUMENTUAK - ABESTIAK

1

PARTE HARTZAILEAK:
Bateria: Iñigo Muñoz
Kitarra: Javier Gestoso edo Yuri Elizegi
Pianoa: Nerea Urrutia
Saxoak: Ander Zabala eta Asier Septién
Baxua: Igor Ruiz
(Irakaslea: Igor Ruiz)

ABESTIAK:
Black is Black---
Love me do--- Beatles
Rock and Roll Radio---
Ramones
Feel---Robbie Williams

2

PARTE HARTZAILEAK:
Tronpeta: Aingeru Zabala
Teklatua: Garbiñe Diaz
Gitarra: Javier Gestoso
Baxua: Joxema Setien
Perkusioa: Iker Zabala
(Irakaslea: Juan Saez)

ABESTIAK:
Dr. Rockenstein´s Laboratory--- A. Clark
Jailhouse Rock---Leiber and Stoller
Highway to hell---Scott Young
Can´t help falling in love---Weiss, Peretti, Creatore
ST.Louie Blues---W.C. Handy

3

PARTE HARTZAILEAK:
Ahotsa eta gitarra:
Eli Sanchez
Zeharkako txirula:
Kattalin Olasagasti
Bibolina:
Ander López de Arregi
Teklatua: Ion Bazán
Perkusioa: Aritz Chouza
(Irakaslea: Virginia Mendia)

ABESTIAK:
Fiesta Pagana---Mago de OZ
Rayando el sol---Maná
Yesterday---Beatles

4

PARTE HARTZAILEAK:
Saxoa: Liam Wesney
Gitarra: Aitor Ibarguren
Teklatua: Ibon Ponce
Bateria: Unai Martínez
(Irakaslea: Virginia Mendia)

ABESTIAK:
Clocks---Coldplay
Ilargia---Ken Zazpi
Final Count Down---Europe

Joxe Ramon Karrera, zikiro prestatzailea

Askotan ikusten ez den lana. Gogorra, neketsua. Baina jai giroa sortzeak merezi duenez, Joxe Ramon Karrerak beste kide batzuekin batera zikirojana prestatuko du San Juan egunean.

Argitzeko, zer da zikiroa?

J.K.: Zikiratutako arkumea da. Une honetan, oso zaila da zikiroa bilatzea eta oso garestia izaten da. Normalean, hemen jaten dena larrean dabilen sei hileko arkume heldu bat izaten da. Arkumeak gizena izan behar du.

Zikiroa erosi eta prestatzeaz arduratzen zarete?

J.K.: Trasteak eta haragia guk jartzen ditugu. Leku berria bada, leku hori aztertzen dugu. Asfaltozkoa bada, sua egiteko hondarrez estali behar izaten dugu.

Zikiro on batek zer behar du?

J.K.: Hasieran, gatz pixkat bat bota behar zaio. Arkumea lautan zatitu eta zintzilika jartzen dugu. Erretzen ari dela, "que lo pario" prestatuta izaten dugu eta hori botatzen diogu. Su ondoan lauzpost ordu izaten da, baina haragia lehortzera iritsi gabe. Grasak hezetasuna ematen dio haragiari; eta hor du grazia.

Zerk osatzen du zikiro-jana?

J.K.: Zikiroa jan aurretik, normalean letxua eta tipula zerbitzatzen dugu. Gero zikiro zati on bat; pertsona bakoitzeko 750 gramo. Horrekin batera, postrea, norbere gustuko edaria, kafea eta kopa.

Andoaindarrak zikiro-jale amorratuak al dira?

J.K.: Urte batzuetan jende gehiago etorri izan da. Azken aldian, 150 pertsona inguru etortzen da. Hasteko ehun pertsonetan dugu jarria gutxienekoa. Ekitaldiaren inguruan egiten den propagandaren arabera jale kopurua aldatu egiten da. Euskal kutsuko giro oso ona izaten da.

Andoaindik kanpo, beste herri batzuetan ibiltzen al zarete?

J.K.: Ibarran ia 700 pertsona biltzen da. Gipuzkoan zikiro-janak jende gehien biltzen duen herrietako bat da. Aurten, Aiako ikastola batean, Andoainen, Uharte-Arakilen, San Pedroetan Lasarte-Orian, Usurbilgo Santixabeletan, Añorgan edota Zubietan izango gara.

Beraz, zikiro-jana jaiei lotuta dagoela esan al daiteke?

J.K.: Udako ekitaldia da, neguan hotzarekin arkumea hoztean grasa gogortzen baita. Bero egin arren, nahiago dugu udan prestatu.

HAUR PARKEA GOIKOPLAZAN

Haur parkea Goikoplazan: jolasak, puzgarriak, ludoteka, oztopozko ohea, pilotadun etxea...

Ekainak 26, astelehena
11:30-13:30 / 17:00-20:00

ARTISAU AZOKA GOIKOPLAZAN

Euskal Herriko puntu ezberdinetatik etorritako artisauen lanak ikusi eta erosteko aukera izango da.

Ekainak 25, igandea
11:00-14:00/ 17:00-19:30

EMBUTIDOS ORMAKI URDAITEGIA
TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA
ONDO PASA FESTAK!
ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida, z/g - 307. Moduloa
☎ 943 592 923 • ANDOAIN

J. MAIZA S.L.
CARPINTERIA METALICA
Aluminioa • Zubi termikoaren haustura
ERAKUSKETAK: Aita Larramendi, 10-behea
Tel.: 943 300 788 / 630 635 719 • 20140 ANDOAIN
TAILERRA: Asteasuko Poligono Industriala • 20159 ASTEASU
Ondo pasa festetan!

XARE
Haur eta gazte oinetakoak
"Ondo pasa Sanjuanetan"
Elizondo plaza, 7-behea
20140 ANDOAIN
943 591 495

LSB
La Salle Berrozpe
ANDOAIN
Sanjuanak!
Laguntasuna...
Sua...
Bihotzez...
Festaz gozatu!

Sanjuanak Andoainen, egitaraua

Ostirala, 23

19:30 Alberto Agirre abesbatzaren Sanjuanetako kontzertu berezia San Martin Parrokian.
20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena San Martin Parrokian Alberto Agirre abesbatzak kantatua. Andoaingo herriak, Agustin Leitza Seme Kuttunari, esker onez.
20:15 Alkate eta Udalbatzaren Soka-dantza Goikoplazan.
21:00 Afari-karaokea Gazte Lokalean.
21:30 Dultzaineroen kalejira Goikoplaza inguruan.
22:00 Txistulari Bandaren kalejira San Juan zortzikoa joz.
22:30 Txupinazoa, txalaparta eta kanpai-errepika. San Juan sua.

Ondoren, Alberto Agirre eta Xingola Abesbatzak, Andoaingo Udal Musika Eskolako Banda, Urki dantza taldea...
23:00 Pilota partidak Arrate Frontoian. 1. Partida : Larralde- Zubieta // Apezetxea – Auxkin. 2. Partida: Gonzalez – Eulate // Martinez de Irujo - Elkoro. Sarrerak 15 euro. 12 urtetik beherako haurrak doan.
23:00 Agustin Leitza elkartearen danborrada. Agustin Leitza elkartetik Goikoplazara.
23:30 Kontzertua Goikoplazan: Urko
23:30etik 04:30era Kontzertua Nafarroa Plazan Doctor Deseo eta dantzaldia Disco Star Show.

Larunbata, 24

09:30 Diana Andoaingo dultzaineroekin.
11:00 Meza Nagusia San Martin parrokian, Alberto Agirre abesbatzak kantatua.
11:00 Esku pilotako finalak Arrate Frontoian. Haur kategoriak.
12:00 Axeri-dantza, dantza herrikoia Goikoplazan. Ondoren Soka-dantza. Gero, Sanjuanetako lehiaketa ezberdinetako sari banaketa Goikoplazan.

13:00 Udal Musika Eskolako Txiki Band taldearen kontzertua Goikoplazan.

16:30 Pilota partidak Arrate Frontoian. Erremontea, zesta punta eta pala motza txapelketetako finalak.
17:30 Herri kirolak Goikoplazan: Iñaki eta Iñaxio Perurena harrijasotzailea eta barrenatzaileak.
19:00 Txikitruk animazio saioa haurrentzat Nafarroa Plazan.
19:00 Zikiroa erretzea Goikoplazan.
19:30 Bertso Jaialdia Goikoplazan: Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Sustrai Colina, Angel Mari Peñagarikano, Imanol Lazkano eta Mikel Mendizabal. Gaijartzailea: Joxemanuel Oiartzabal.
21:00 Afari herrikoia: Zikirojana Goikoplazan. Ondoren, kantu saioa.

23:30etatik 2:00etara Magnum Brosed Orkestrarekin dantzaldia Goikoplazan.
23:30etatik 4:30etara Dikers Taldearen kontzertua Nafarroa Plazan eta dantzaldia Muzik Disko Mobil-ekin.

Igandea, 25

08:30etatik 19:00etara "San Juan Saria" izeneko III Golf txapelketa Goiburu auzoan.
9:00 Diana Andoaingo dultzaineroekin.
9:00 Pagamendin San Juan 2006 Sariko II Kaiolako Galeper-tiroketa.
11:00 VII. Bizikleta Festa Nafarroa Plazan. Opariak izango dira parte hartzen duten guztientzat. 3 -12 urte bitarteko haurrek parte hartzeko aukera izango dute.
11:00etatik 14:00etara artisautza azoka Goikoplazan.
12:00etatik 13:00etara Soinuak Musika Eskolako ikasleen kalejira.
13:00 Udal Musika Eskolako Bandaren kontzertua Goikoplazan.
16:00 Txirrindulari lasterketa. Gipuzkoako Itzulia: "San Juan saria". Irteera: Goikoplaza, Kaletxiki...
16:45 Hip Hop erakustaldia Goikoplazan.
17:00etatik 19:30etara Artisautza azoka Goikoplazan.
17:30etatik 19:00etara Iruñako "San Juan" buruhandien eta erraldoien konpartsa: Nafarroa Plaza, inguruko kaleak eta Goikoplazan.
18:00 Txalaparta ibiltaria albokariek lagunduta, kalez kale.

18:15 Txirrindulari lasterketa. Helmuga: Goikoplaza.
19:00 Gari, Montxo eta Joselontxo Pailazoak Goikoplazan.

20:30 Triana taldearen emanaldia Goikoplazan.
22:30 Udal Musika Eskolako "Konboak" eta "R" taldea Nafarroa Plazan.



Astelehena, 26

9:00 Diana Andoaingo dultzaineroekin.
11:30etatik 13:30etara Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka, oztopozko ohea, pilotadun etxea...
12:00 Meza Nagusia San Martin elizan hildako jubilatuen oroimenez.
14:00 Jubilatu eta laurogei urtetik gorako aitonamonen bazkaria Oianume Jatetxean. Ondoren, dantzaldia izango da bertan.
17:00etatik 20:00etara Haur parkea Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka, oztopozko ohea, pilotadun etxea...

18:00 Haur danborrada: La Salle-Berrozpe, Aita Larramendi eta Ondarreta

20:00 Erritmo latinoen berbena Goikoplazan (salsa, merenge, cha-cha-cha...), herriklaseak eta tarteka show-a.
22:30 Su festa (Pirotecnia Zaragozana, S.A.) Allurralde Kiroldegiko pasealekutik.

ERAKUSKETAK :
Urigain Kultura Etxea ekainaren 19tik 27ra:

Kultura Batzordeak antolatutako ikastaroetako ikasleek egindako lanak: pintura, egur taila, eskulanak.

2006 urteko San Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak.

Sanpedroak Andoaingo Kaletxikin

Ekainak 30, ostirala

19:00 Kandido eta bere txikitxuei ongietorria. Goikoplazatik jaitsiko dira kalejiran, elkartean ikurriñak ipiniko dira eta zapi berde eta beltza kalean jarriz hasiera emango zaie jaiei.
20:00 Soinuak musika eskolaren emanaldia Berrozpeko kaperan. Ondoren, sardina-jatea.
23:00 Kontzertua: "El último hombre elefante" eta "Latitud 43".
01:00 Oilasko hotza txanpainarekin Ontza Elkartean.

Uztailak 1, larunbata

10:00 Kaletxikiko I Eskupelota Topaketa Goikoplazan.
10:00 IV Karmelo Lasarte plater tiraketa Buruntza harrobian. Entrenamendu saioak.
12:00 Kaletxikiko XIII. Sagardo txapelketa. Haur parkea (Quad-ak, zezen mekanikoa, puzgarriak).
16:00 IV Karmelo Lasarte plater tiraketa Buruntza harrobian.
17:30 Toka txapelketa herrikoia.
19:00 Batukada Zozongo taldearen eskutik.
20:00 Ontza elkartean afaria: Joseba Arabaolaza eta Balbino Castro bazkideak omenduko dira.
22:15 Kaletxikiko XXI. Danborrada Nagusia.
23:00 Dantzaldia Los Rubi taldearen eskutik.
01:00 Oilasko hotza txanpainarekin Ontza Elkartean.

Uztailak 2, igandea

09:00 Diana.
11:30 Seat 600 autoen erakusketa.
12:00 Meza Berrozpeko Kaperan auzoko hildako eta bazkideen alde.
12:30 Urki dantza taldearen emanaldia. "Gora Kaletxiki" txarangak auzoko giroa alaituko du. Bertan txorixo pintxoak eta ardo txikitoak banatuko dira.
14:00 XVII Kaletxikitarren bazkari herrikoia txarangak girotuta. Ondoren, Los Rubi taldearekin dantzaldia.
18:00 Zurgai taldearen eskutik herri-kirol erakustaldia. Ondoren karaokea eta disko-festa. Kandido eta txikitxuek zapi berde-beltza gorde eta azkeneko suziriekin emango zaie amaiera jaiei.

38–58 neurriko arropa salgai!
Ondo pasa sanjuanetan
KUTUN
ZANCO galtzak
LUISA VIOLA by ELENA MIRO
Kale Nagusia, 12 • Andoain • Telf. 943 591 863

Somier elektrikoak ■ Latexko koltxoiak ■ Altzari osagarriak
Ondo pasa festak!
JOSEBA Altzariak
Kaletxiki, 6 • ANDOAIN - Telf. 943 590 761 - Faxa: 943 303 005

STOP LIBURU DENDA
Ondo pasa jaietan!
Agustin Leitza, 27
☎ 943 591 603
20140 ANDOAIN
(Gipuzkoa)

Istuitza Garden
Ezkontzetarako apainketak
Jai zoriontsuak!
Etxerainoko zerbitzua!
• Udako lore eskaintza zabala, lore naturalak eta artifizialak
• Lorontziak • Lurra
• Hiletarako loresortak
• Ehizatxakurrentzako janari berezia
• Kanposantuko urte osorako lore artifizialak
Ordutegia: 9:00-13:30 • 17:00-20:00
Karrika, 9 - ANDOAIN ☎ 943 592 448

Jone Olasagasti andoain
LORADENDA
Kaleberria, 1.
Tel.: 943 300 620
Oparitarako osagaiak
Ezkontzak
Jaiotzak
Gora herriko festak!

ARTETA TABERNA
Sanjuanak ondo pasau!
Arteta kalea, 5-behea
Tel.: 943 593 094
20140 Andoain

XiXORi
BELARDENDA
Dietetika zentroa • Kontsulta naturista
Gora Sanjuanak!
Ondarreta, 9
☎ 943 590 199
ANDOAIN
Txitibar, 4
☎ 943 245 023
ANDOAIN

Ondo pasa jaietan!
GANBARA TABERNA
Arteta kalea, 5-7 behea • 943 591 971 • ANDOAIN

Aspaldiko Sanpedroei begira

Herriko jaiak gain-gainean ditugun honetan, aspaldiko Sanpedroak izan ditugu hizpide garai haiek bizi izan zituzten lau asteasuarrekin.

Hamarkada gutxiren bueltan asko aldatu dira herrietako jaiak. Esaterako, orain ez bezela, goiz erretiratu beharra izaten zuten gazteek. "Avemariak" jotzerako etxean izaten ziren. Musika eta dantzaldiak izaten ziren jaietako ekitaldi jendetsuenak. Soinu handiarekin izaten ziren hasieran eta aurrerago, orkestinen garaia iritsi zen. Herriko ttunttuna ere jaietako protagonista izaten zen. Atez ate ibiltzen ziren haiek, batean jakiak eta bestean diru pixka bat bilduz.

Jendez gainezka izaten zen Asteasuko plaza dantzaldiko orduan. Villabona aldetik jende ugari hurbiltzen zen Asteasuko plazara. Gora eta behera ibiltzen zen autobusa jendea ekarriz eta eramanaz. Autobusaren gaialdea ere jendez beteta hurbiltzen zen.

BALSA DANTZATZEA, DEBEKATUTA

Urte batean, orkestako kideak balsa jotzen ari zirela, apaizak altoa eman zien, balsa dantzatzea debekatuta zegoelako. Trasteak bildu eta alde egin zuten musikariek. Urte batzuetan ez ziren itzuli musikari haiek. Izan ere, balsa dantzatzea debekatuta zegoen garai hartan. Debeku hori zela eta, herriko jendeak ez zekien balsean dantzan egiten. Kanpotik etortzen zirenek bakarrik egiten zuten. Kanpotarrek eskatuta jotzen zuten musikariek balsa. Behin baino gehiagotan, farre egiten zieten asteasuarrei balsa dantzatzen ez zekitela eta.

Ezkonduta egon gabe elkarri helduta dantza egitea bekatu handia zen garai hartan. Kontu handiz ibiltzen ziren mutil-neskak, gregaziotik botatzen zituzten hala harrapatutakoak. Jauna hartu gabe edota konfesatu ondoren absoluzioa eman gabe ere uzten zituzten hala ikusitakoak. Gurasoentzat sekulako lotsagarrikeria izaten zen semealaben bat kongregaziotik bota izatea eta beldurrak airean ibiltzen ziren herriko gazteak.

NESKA-LAGUNTZEA

Dantzaldia hasitakoan, dantza eskatzen ibiltzen ziren mutilak neskei, faborez. Neskek gustuko mutilari bakarrik ematen zioten baiezkoa, gainontzekoak bidaliz. Neska-laguntzea ere bikotekidea bilatzeko modu egokia izaten zen. Mutilek, gustuko neskari etxeraino laguntzen zioten. Horregatik esaten dute garai haiek bizi izan zituztenek, herrigunetik urruti bizi ziren neskek, errezagoa zutela mutillaguna bilatzea, bide luzeagoa eta bakartiagoa izanik, elkar ezagutzeko aukera gehiago izaten zelako.

Jaietan, gauez irteten berandu hasten ziren gazteak. Hogei bat urte bete arteraino ez zuten askok gurasoen baimenik izaten.

Sanpedro eguna jai egiteko eguna izaten zen etxe askotan, baina beste askotan, soroan aritu ondoren joaten ziren festara. Meza Nagusia entzun eta bazkaria prestatzera joaten ziren emakumeak. Oilo zopa, garbantzuak, oiloa piparrekin eta arroz-esnea; horixe izaten zen etxe gehienetako bazkaria. Bazkaldar ugari biltzen zen gainera. Etxe gehietan hogei bat pertsona izaten zen Sanpedro eguneko bazkarian eta horietatik asko, gaua pasatzera ere geratzen zen.

Pilota partidak, bertsolariak, herri kirolak, karrozak eta bestelakoak ere izaten ziren jaietan. Sanpedro bigarrenean egiten zen karroza desfilea. Traktoreak herrira iritsi aurretik idiak edo zaldiak tiratako karroza ikusgarriak izaten ziren. Baserri giroko gaiak izaten zituzten gehienetan eta ikusmira handia sortzen zuten.

Gaur egun, oso bestelakoak izaten dira jaiak eta gure berriemaleek, argi dute asko galdu dutela. Plazan musikariak dantzaririk gabe ikusteak pena handia ematen die eta argi dute, festa norberak jartzen duela, antolakuntza handien beharrik gabe.

Sanjuanak Iturriotz-Aian, Kupelaren erritmora

Kupela, kupela, sagardoren hotela/ kupela, kupela, zaindu ezak horrela abestia ezagun egin zuten Epeldek eta Larrañagak. Hainbeste, azken urteotan jaietan gehien entzuten den kantuetakoa izaterarino. Larrañagak urte honetarako Kupela erromeria taldea aurkeztu du, *Gau giro* diskoarekin batera. Diskoan estilo eta genero ugaritako hamalau abesti biltzen dira eta pieza guztiak plazan jotzeko sortuak dira. Trikitixa doinuak, pasodoblea, boleroa, runba..., giro ederra ipiniko dute Iturriozko festetan! **Angel Larrañaga**k, Xabier Alberdi **Zabale** trikitilariak eta Juan Ezenarro **Berastegi** perkusionistak osatzen dute taldea.

Ekainak 23, ostirala

08:30 Oilasko biltzera irtengo dira auzotarrak Ansorregi eta Larrañaga trikitilarien laguntzaz. Egun guztian zehar baserriz baserri ibiliko dira oilasko biltzen.

21:30 San Juan sua. Gauean, Tapia eta Leturia eta taldea.

Ekainak 24, larunbata

11:00 Meza. Haur eta loreen bedeinkapena.

12:00 Herri kirol saioa. Harrijasotzaileak: Aimar Irigoien eta Izeta II. Segalariak: Andoni Rezabal, Jesus Goenaga, Jon Rezabal eta Jon Mujika. Iluntzean, Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Jesus Maria Irazu.

Ekainak 25, igandea

12:30 Meza. Ondoren, Gorritiren animaliak.

14:30 Oilasko bazkaria Bertsolariak: Olaso eta Zatain Trikitilariak: Zabale, Larrañaga eta Berastegi. Gauean, Kupela taldea.

Eusko Jaurlaritza

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

Jexux Mari Irazu: "Etxetik gertu abestean, zure burua gehiago estutzen duzu"

Sanpedro egunaren bezperan, bertso saio ederraz gozatzeko aukera izango da Asteasuko kiroldegian.

Sanpedro bezperan egingo den bertso saioan izango da Jexux Mari Irazu larrauldarra.

Asteasuko saioan izango zara, herritik hain gertu abesteak zein abantaila eta desabantaila ditu?

Konpromiso pixka bat sortzen du jende ezagunaren aurrean abesteak. Saio gehienetan ez duzu erreferentzia zuzenik entzuleekiko. Bertso afarietan, errazagoa da jendea ezagutzea eta haiei zuzenean abestea baina, jaialdietan ez. Asteasuko saioan, etxetik bertan izatean, zure burua pixka bat gehiago estutzen duzu. Jaialdi guztietan saiatzen gara gauzak ondo egiten, baina etxetik horren bertan izanda, pixka bat gehiago.

Txapelketa Nagusia pasa berria izateak eragiten al du udako saioen kopuruan?

Nik uste antzeko izaten dela. Behar-bada Bizkaia aldean nabarituko zen pixka bat finala han izan zelako. Hemen, urteroko saioak dira, udan herrietako festetakoak izaten dira eta urte garai honetan beti ibiltzen gara lanpetuta. Txapelketako urtean nabaritzen da bertso afari, hitzaldi eta horrelako gehiago izaten delako, baina uda aldeko saioak urterokoak izaten dira eta ez da aldaketa handiegirik nabarmentzen. Ia herriero izaten da bertso saioren bat festetan eta hori berdin mantentzen da. Behar-bada, saio kopurua igotzea baino, abesten duten bertsolariengan eragiten du gehiago, izan ere, txapelketan ondo ibili ziren bertsolariek dei gehiago jasotzen dute. Asteasuko saioan, esaterako, sei bertsolari izango gara, horietatik lau txapelketan finalera iritsi zirenak. Gai jartzen berriz, Jon Zaldua izango da. Esperientzia du Jonek eta badaki saioa nola eramman. Nire gusturako jaietako saio hauetan umore pixka bat behar da, baina karga pixka bat ere eman behar zaio. Gertuko gaiak jorratzea ere gustuko izaten dut. Askotan, Irak-i buruz abesten aritzen gara, eta hori ondo dago, baina bertako gaien inguruan aritzea ere beharrezko ikusten dut, errazagoa da jendearengana iristea eta saioa ondo ateratzea.

> Egaña, Mendiluze, Colina, Arzallus, Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu arituko dira Jon Zaldua gaijartzailearen agindutara.

Entzuleen kopuru aldetik, nabaritu al da igoerarik?

Bertsolaritza oso garai ona bizitzen ari da. Duela hamar bat urte sekulako igoera izan zen zaletu aldetik, gero behera etorri zen eta duela lau edo bost urtetik ona, berriro ere gora egin du zaletasunak. Asteasu, Zizurkil edota Amasa-Villabonako saioetan, esaterako, jende asko biltzen da. Bostehun lagun inguru biltzen dituzten saioak ohikoak dira herriko jaietan. Kopuru hori handia da, ez da erraza edozein ekitalditan horrenbesteko jendetza biltzea. Gauzak pixka bat zainduz gero eta ondo antolatuz gero, jendea erruz biltzen da bertso saioa entzutera. Asteasuko saioak urte asko daramatza martxan, eta jende asko biltzen da.

Asteasuko bertso eskolako kideak bikain dabiltza. Etorkizuna ziurtatuta dago.

Bai, Amaia Agirre dabil haiekin lanean eta badakit oso ondo dabiltzala. Asteasun, Zizurkilen eta Amasa-Villabonan ere ikasten ari diren gazteak badabiltza. Bertso eskolen lana oso garrantzitsua da, baina ondoren, lan horri jarraipena ematen asmatu behar da, bertsotan aurrera jarraitzen eta hori izaten da zailena. Gu hogei bat urterekin hasi ginen entrenamentu saioak egiten. Lehendabiziko udan Asteasuko Elizmendiko lokal batean aritu ginen Aitor Usandizaga, Iñaki Urkola eta hirurok. Elkarri gaiak jarri eta bertsoak abesten genituen. Uda batzuk egin genituen Elizmendiko entrenamendu haietara joan eta saio batzuetan parte hartzen.

Baserriko haragia
Urdaitegi berezia
JOXEAN HARATEGIA
Bulandegi bidea,1. Zizurkil
943 696 242

Okindegia - Kafetegia - Gozotegia
KABELA
LEHENENGO URTEURRENA
Jai zoriontsuak herritarrei eta kanpotik zatozten guztiei
Nagusia, 3 - Tel.: 943 696 405
ASTEASU

PATXINE JATETXEA
Ondo pasa jaietan
GURE BEREZITASUNA:
EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK
Errementari,1 ☎ 943 691 025 - ASTEASU

MUNTAIAK
ADOS SL
Gora Sanpedroak! Ondo pasa jaietan!
Keelavite, industriagunea, z/g
Beballera auzoa
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)
Tel.: 943 694 384
Faxa: 943 694 375

Jaietako egun handian kantu zaharrak gogoratuz

Sanpedro egunez ohikoa izaten da herriko musikarien kalejira.

Santa Ageda bezperan kalez kale ibili ziren kantu jirako kideak. San Pedro egunez, herriko musikariekin batera ibiliko dira.

Trikiti eta txistu hotsei aurten, herritarren ahotsa batuko zaie. Euskal kantu zahar eta berriak entzun ahal izango dira jaietako egun nagusian.

Urria inguruan hasi ziren kantu saioak antolatzen. Hilabetean bi aldiz elkartu eta euskal kantu zaharrak abestea da helburua. "Egunkaria itxi zenenan, Donostiako Intxaurrondon eta Amaran talde batzuk sortzen hasi ziren, euskal kanten inguruan. Ni tartean ibili nintzen eta Asteasun horrelako zerbait egitea bururatu zitzaidan. Larraulen, Adunan eta Alkizan ere martxan jarri ziren. Asteasun egindako lehen bileran lau pertsona elkartu ginen, baina pixkanaka taldea haziz joan da eta orain hamabost bat kide elkartzen gara", azaldu du kantu jira antolatzeko lanetan aritu den Itxaso Gonzalezek.

Sanpedro egunean herritar talde horren ahotsak entzun ahal izango dira. 2003an hasi ziren herriko txistulariak jaietako kalejira antolatzen. Trikitilariak batu zitzaizkien ondoren, eta orain, taldea osatuko dute kantu jirako kideekin. 19:00etan bilduko dira Elizmendin eta handik hasiko dute kalejira. "Txistularien eta trikitilarien kalejiran, gai bat hartu eta mozorrotuta atera izan dira aurreko urteetan. Aurten ere horrela egingo da. Mendizalez jantziko gara eta mendiaren inguruko doinuak izango dira protagonista. Joxean Azkue gogoan izan nahi dugu, bera izan baitzen kalejira hauen bultzatzaileetako bat", dio kantu jirako kide den Mertxe Irazustak.

> Sanpedro egunean herritar talde horren ahotsak entzun ahal izango dira

ONDO PASATZEA, XEDE NAGUSIA

Hilabetean bitan, astelehenarekin, Kultur Etxean elkartu izan dira kantu jirako kideak. "Oso giro polita dugu. Kantuan egiten dugu, elkarrekin egon, hitz egin..., adrenalina botatzeko balio du. Aspaldiko kantuak gogoratuz eta abestuz, ondo pasatzen dugu eta hori da helburua, herrikideekin egoteko beste modu bat izatea. Herritar guztiak animatu nahiko nituzke parte hartzera. Horretarako, astelehen iluntzetan Kultur Etxera azaldu besterik ez da egin behar", dio Itxasok.

> Parte hartu nahi duenak astelehen iluntzetan Kultur Etxean entseatzeko aukera dauka

Martxoaren 25ean, kantu jira egin zuten herrian zehar: "Aduna, Larraul, Alkiza eta Donostiako lagunak etorri ziren. Herrian zehar ibili ginen kantari eta ondoren, elkarrekin bazkaldu genuen. Ederki pasa genuen eguna. Beste herrietako taldeekin harremanetan gaude, bai kantu jirak antolatzeko baita errepertorioa osatzen joateko ere. Internet bidez material asko bildu dugu. Angeles Uzkudunek utzitako kantu liburu zahar batetik ere atera ditugu kantuak".

KANTUTEGIA, PREST

Azken asteotan astero bildu dira kantu jirako kideak, jaietako saioa prestatzeko. Sanpedro eguneko kantutegia prest dute dagoeneko: "Txistulariekin bilduko gara azken entsegu bat egiteko. Haiekin batera abestuko ditugun kantuak prestatu nahi ditugu. Beste kantu batzuk guk bakarrik abestuko ditugu, musikaririk gabe. Aipatu beharra dago, bestalde, 19:00etan hasiko dela kalejira, baina goizerako sorpresatxoren bat ere prestatzen ari garela".

Bixente Otegi Lizaso
Indusketa eta saneamenduak
Hormigoizko lanak
Asfaltozko zoladurak
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
Tel.: 943 690 178 • 20159 Asteasu

Tel.: 943 691 331
20159 ASTEASU
Iturri-Ondo
Jatetxea
Jai zoriontsuak igaro

Transportes Lakunza
609 434 910 | 609 401 884
Tel./Faxa: 943 693 212
www.transporteslakunza.com
info@transporteslakunza.com
A Industrigunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA
Furgonetak kamioiak eta kamionetak
Zerbitzu zuzena
10 milioiko karga bitarteko asegurua
Ondo pasa festetan

OGI ZURI
OGI GOXO
OKINDEGIA, S.L.
Lizarra-etxea, 32. Elizmendi auzoa. ASTEASU ☎ 943 691 896
OGI-ZURI
Bulandegi bidea 1-3. ZIZURKIL ☎ 943 691 000
OGI-GOXO
Kale Nagusia, 26. AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294
FESTAK ONDO IGARO!
Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

Pilota eskolako lehen herri txapelketa

ASTEASUKO PILOTARI GAZTEEN JARDUNA IZANGO DA IKUSGAI SANPEDRO EGUNEZ ELIZMENDIN.

Maila ezberdinetako pilotarien arteko bost partida izango dira jokoan.

Pilota eskola txapelketako finalak jokatuko dituzte meza nagusiaren ondoren. Urtean zehar egindako entrenamendu saioen emaitzak izango dira ikusgai bertan.

Maider Mendizabal anoetarrak du Asteasuko pilota eskolaren ardura eta bera ibili da txapelketa antolatzeko lanetan. “Gipuzkoako eskolarteko txapelketa otsailean amaitu eta ikasturtea amaitu bitartean, ez da beste txapelketarik izaten. Haurrei luze egiten zaie. Horregatik, bizitasun pixka bat bilatzeko asmotan, txapelketa bat antolatzea pentsatu nuen. Buruz buruko txapelketa antolatu dugu guztiei jolasteko aukera emateko, denek denen aurkako partidak egin dituzte. Entrenamendu saioetan egin ditugu partidak. Maiatzean jarri zen martxan eta finaleko partidak Sanpedrotan egitea proposatu zidaten. Umeek oso ondo pasa dute, esperientzia polita izan da”, dio Maiderrek.

Pilota eskolako azken egunean, ekainaren 2an jokatu zituzten finalerdietako partidak. “Partidak jokatu ondoren, sari bana banatu zitzaien parte hartzaile guztiei eta ondoren, merienda egin genuen. Gurasoak hurbildu ziren partidak ikustera eta oso giro polita sortu zen”.

> Meza Nagusiaren ondoren, Elizmendin jokatuko dira partidak

BOST PARTIDA SANPEDRO EGUNEAN

Finaleko partidak Sanpedro egunez jokatuko dira. “Meza nagusiaren ondoren, Elizmendin jokatuko dira partidak. Txapelketa guztia pilotalekuan egin dugu, baita finalerdiak ere, baina finala Elizmendin egingo da, bertan izaten baita festa giroa eguerdi aldera. Bost partida ezberdin izango dira, kategoria bakoitzetik bana. Sei urteko haurrak izango dira txikienak, pilota eskolan aurten hasi direnak. Horiek pilotari helduz jolasten dute. Haurrek ondo pasatzea da helburua eta horretarako jokoa euren beharretara egokitu behar da, pixkanaka ikas dezaten”. Finaleko egunean, bost partida jokatuko dira.

FRONTOIAN ARITUKO DIREN PILOTARIAK

Hauexek izango dira norgehiagokan arituko diren pilotari gazteak:

Aurrebenjaminak. 1.maila:
Xabier Irazu-Alaia Goñi
2. maila:
Julen Aizpuru-Ibon Jauregi
Benjaminak:
Irati Otaegi-Hodei Iraola
Alebinak:
Jon Zubeldia-Jon Ander Artaza
Helduak:
Julen Urruzola-Yeray Otaegi

Berrogei haur inguru dabiltza Asteasuko pilota eskolan Maider Mendizabal irakaslearekin. “Aurten bederatzi ume hasi dira eta horietatik bost neskak dira. Aurrebenjaminetan hamabost haur ditut guztira, benjaminetan bederatzi, alebinetan hamabi eta infantil eta kadete mailako hiru”.

PILOTA ESKOLAREN LEHEN SAIAKERA

Asteasuko pilota eskola txapelketa antolatzen den lehendabiziko aldia da aurtengoa: “Umeak pozik ibili dira txapelketa guztian zehar. Finaleko partidak ere bide beretik joaten badira, datorren urtean berriro ere herri mailako txapelketa egiteko asmoa dugu”. Datorren urtekoa ordea, urruti da oraindik. Momentuz, Sanpedro eguneko partidak ikusiz gozatzeko aukera izango dugu.

ASMEK
ASTEASU MEKANIZATUAK
Kontrol numerikoan mekanizazioa
Mekanizazioa oro har
Ondo pasa jaietan
Asteasuko industrialdea - B Gunea - 38
asmek@asmeksl.com
20.159 ASTEASU - Gipuzkoa
Tel.: 943 692 230 - Faxa: 943 690 899

arruti gozotegia
• Etxeko izozkiak
• Etxeko obradorea
• Enkarguak jasotzen ditugu
Sanpedroak asteasuar guztion jaiak
Zumea 18, 943 593 777 – ANDOAIN

Azkonobieta BASOKO LANAK
Ondo pasa Sanjuanetan
Konpromisorik gabeko aurrekontua
• Basoko lanak • Lorategien mantenua
943 694 554 • 656 720 607
Azkonobietaberri baserria • Asteasu

fotocolor
ERREBELATUA ORDU EAN
• Argazki kamera analogiko eta digitalak.
• Ezkontzetako erreportaiak egiten ditugu.
Jose Ignacio Unanue, J.B. Erro, 1
Tel.: 943 594 332 • 20140 ANDOAIN

IZURTZU ERRETEGIA
■ Eguneko menua
■ Karta
■ Asteazkenetan itxita
■ Erreserbak egitea komeni da
Jai zoriontsuak!
Andazarrate Gaina
943 694 516
943 580 866
ASTEASU

Sanpedroak Asteasun, egitaraua

Asteazkena, 28

20:30 Txupinazoa, sorginaren jaitsiera eta pregoia, txistulari eta buruhandien kalejira.

22:30 Bertso saioa frontoian. Bertsolariak: Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Amaia Agirre, Jesus Mª Irazu. Gai jartzailea: Jon Zaldua

Osteguna, 29

San Pedro eguna

10:00 Txistularien diana.

11:15 Meza Nagusia. Ondoren Elizmendin: Hamaiketakoa. Asteasuko Pilota Eskola Txapelketako Finalak.

18:30 Asteasuko XI. Dantza solteko txapelketa.

19:30 Asteasuko musika kalejira. Txistulariak, trikitilariak, kantu jira.

23:00 Musika emanaldia plazan. Mal de ojo Izotz taldea.

12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara: Haur parkea.

Gauerdian zezensuzkoa eta su-festa.

Ostirala, 30

Jubilatu eta koadrilen eguna

10:30 Meza. Ondoren Aitzondo Elkarteak Herriko Jubilatuei eskaintzen dien hamaiketakoa.

13:00 Bertso eta trikitixa saioa Plazan. Bertsolariak: Telleria eta Zeberio. Trikitilariak: Xapre eta Zaharra.

14:30 Jubilatuen bazkaria Frontoian Bertsolariekin eta trikitilariekin

14:30 Koadrilen bazkaria herriko plazan. Arratsaldean zehar trikitilariak: Laja eta Izer. Epelde eta Lutxurdio.

16:00 Haur jolasak.

18:00 Zezen txiki eta poniak.

20:00 Mulambo taldearekin batukada kalejira.

21:30 Herri afaria. Ondoren trikitilariekin erromeria.

Larunbata, 1

Haurren eguna

11:00 Haurren krosa eta marrazketa lehiaketa.

13:00 Haurrentzako bazkaria plazan.

15:30 Aurpegi margoketa.

17:00 Asteasuko XX. Mus Txapelketa Herrikoia frontoian.

18:00 Kale antzerkia. Atikus taldeak "Untxitegietako kukumis meloa" eskainiko du. Ondoren buruhandiak.

23:00 Abiba diskojaia goizaldera arte.

Igandea, 2

12:00 Pilota partidua frontoian. Palaz: Asteasuko Pala Txapelketaren finala. Ondoren: sagardo dastaketa plazan.

18:00 Herritarren arteko herri kirolak.

19:00 Tapia eta Leturia taldearekin erromeria.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Aiurri BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna MARMENDI
INISTORRA
Ekoizlea: ERROITZ GALTZU MUGATUA
Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia
Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du: ANDOAINGO UDALA, URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren Andoaingo Udalerri Biltzarra eta Urnietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra: Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnietako egoitza: San Juan Plaza, 9 20130, Urnieta
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com

Ekoizpena: erroitz@erroitz.com

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa: Ainhoa Gil, Aritz Gorriti, Jon Ander Ubeda eta Jon Unanue.

Diseinua: Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate Arduraduna: Fernanda Irazu.

Argazkilariak: Xabier Ubeda.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia (Huarte-Iruñea).
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea: Aitziber Arreseigor.

Banaketa arduraduna: Xabier Ubeda.

Banatzaileak: Andoain: Laida Jauregi, Elixabet Isasi. Urnieta: Ander Balda, Beñat Erkizia.

Agenda

EKAINAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Zinema

Urnieta

- "Salvaje" filma proiektatuko da Saroben. Ekainaren 16an (ostirala) 22:00etan eta hilaren 18an (igandea) 16:00retan. Sarrera: 2,50 euro.
  Ekainaren 16an eta 18an

- Uda giroan sartuta, zinema kalera eramango du Gazte Lokalak. Asteazkenero filma eskainiko da.
  Ekainaren 28tik aurrera
  Goikoplaza

Sanjuanak

Urnieta

- 20:30 Herriko haurren kantu emanaldia Plazido Muxika plazan.
  22:00 San Juan sua.
  Ekainak 23, ostirala

Meza

Urnieta

- Uztailaren 9ko, 16ko eta 23ko meza saioak ETB-k grabatuko ditu. Grabaketa saio horiei begira, abesti-entsegua izango da parrokian..
  Ekainak 28, asteazkena.
  19:30, San Migel parrokia

Kultur Astea

Urnieta

- 17:00 Txokolatada.
  17:30 Dantzaldia.
  Ekainak 23, ostirala:

Ikastaroak

Urnieta

- Uda honetan, tenisa, eskalada, igeriketa, surfa eta hipika kirol modalitateen inguruko ikastaroak eskainiko ditu kiroldegiak. 16 urtetik beherako gazteei zuzenduta dago. Taldea osatzeko gutxieneko pertsona kopuruak izena eman beharko du.
  Izen ematea hilabete amaierara arte: 9:00-13:00 artean, Udal Kiroldegiko bulegoetan.

Batzarraldia

Andoain

- Udaleko osoko batzarraldia.
  Ekainak 29, osteguna. 09:00

Elkarretaratzeak

Andoain, Urnieta

- Etxerat taldearen ekimenez, presoen eskubideen aldeko bilkurak Andoainen eta Urnietan.
  Ekainak 30, ostirala. 20:00

Zorion-agurrak:

aiurri@topagunea.com

ZORIONAK

Pilik, Urnietako dendaririk alaienak, ekainaren 26an urteak beteko ditu. Muxu handi bat eta zorionak txabalota, etxekoen eta lagunen partetik.
URNIETA

ZORIONAK

Ostiralian, ekainak 23, Oihana Pagola Arrietak 3 urte betetzen ditu . Zorionak aitaren eta amaren partetik.
URNIETA

ZORIONAK

Iker Olaetxeak, ekainaren 27an urteak beteko ditu. Zorionak Andoaingo artzainik jatorrenari.
ANDOAIN

ZORIONAK

Edurne Goenagak ekainaren 26ean urteak beteko ditu. Asteasuko neska jatorrenari zorionak eta muxu handi bat.
ASTEASU

HIAZINTO FERNANDORENA • URNIETA

Euskaldunak, burutik eginak?

Hala esan zuen, lotsa gutxirekin diot nik, Europako erakundean Espainiako ordezkaria den J. Solana ministroak Montenegrok bere independentzia lortu zuen egunean, hilabete honen lehen igandean presesski. Tripako minez esan ere esan zuen, duda-muda handirik gabe. Ezusteanharrapatu zuen nonbait edota ez zuen begi onez ikusten gertatua eta ongi ohartzen zen zer nolako zama zetorkion gainera, bestela ezinezkoa da kazetariek Euskal Herriaren arazoa aipatu ziotenean jaun ahaltsu honek gisa horretako ateraldia egitea.

Gauza jakina da ez zitzaiola oso gustuko bilakatu herrialde horrek harturiko erabakia, bazekien-eta ondorio nabarmenak izango zituela, beste herrialde batzuen jokabidea edo eskakizuna etorriko dela atzetik, hala nola E. Herriarena bat.

Montenegro al dugu berriz ere hizpide esan dezake irakurleren batek. Bai, eta halaxe da. Nire ustetan garrantzi handiko gertaera izan da euskaldunontzat, zeren eta ate berri bat ireki baitu Montenegrok Europako Elkartean. Ate berri bat? Dudarik gabe. Estatu ez diren nazio txikientzako ate berria. Oraindaino Estatuen Elkartea baldin bazen Europa, hemendik aurrera ez daiteke gauza bera esan, Estatu ez diren nazioak, gurea barne, esperantzarik handienaz bete dituelarik ate honek.

Halatan, on zaigu euskaldunoi bihotza bero izatea alde batetik eta burua argi bestetik, eman beharreko pausoak artez eta zuzen gauzatu ditzagun. Orain arte Irlanda izan dugu ispilu, han burutu behar izan duten borroka, bilatu duten irtenbidea, etab. baina aitzakia ederra izan dute kontrakoek beti ere. Ez omen batak bestearekin ikustekorik, ez omen elkarrekin konparagarri Irlandako arazoa eta Euskal Herriarena. Mila bider entzun behar izan dugu, ahoa hortzak bete uzten gintuztelarik. Eta orain Montenegroren kasuan burutik eginda gaude. Hori, gainera!

Alabaina, baserritarren zuhurtzia gogoan, euskaldunok "hitz gutxi eta haik onak" eta ekintzak behar ditugu luze: alderdien mahaia, elkarrizketa, presoen etxeratzea, oinarrien onarpena, erreferenduma, askatasuna... Badugu zereginik aski, hala fede! Oso gogoan behar dugu herri ekintza edo mugimendu zabala eskatzen duela honek, eta ez duela guztia goikoen eta politikoen baitan uzteak balio. Hemen mundu guztiak mugitu behar duela eta bakoitzak bere ahalmen edo gaitasunen arabera, beharrezko duela jokoan sartzea, guztion ahaleginez partida irabaziko badugu.

Ezin-eraman edo ezin-etsi izugarria nabari da Espainiaren aldetik gure kasuan, katalanen kasuan bezalaxe. Ez dute inoiz aitortzen eta ez aitortuko, kostata ez bada, Euskal Herria nazio bat denik, eta are gutxiago Espainiaren kolonia denik hein batean eta Frantziarena beste batean. Hala ere, Frantziak aitortu du, egunotan gainera, arazo politikoa dela Euskal Herriarena baina berak, eskuak garbituz, ez duela ikustekorik horretan, Espainiak baizik.

Zerbait da, hala ere. Orain arte terrorismoa zen. Terrorismoa gora, terrorismoa behera. Aspaldiko urteotan edonor ohartuko da produktu ugaria izan dela gure inguru munduko merkatuan hauxe. Sustraian arazo politikoa dela gurea esateak ere zerbait balio duela esan behar, hortik aurrerako pausoak erakusteko dauden arren.

Nik neuk asko miresten dudan idazle batek, Orella Untzue jaunak, grazia egin zidan ekainak 19ko prentsan delako ezin-etsi horren haritik esaten zuenak. Alegia, ez dakigula nekez bederen abian den bidetik Espainiaren geroa zertaratuko den eta zer nolako ordezkaritza izango duen Europaren barne nahiz hemen. Orain baino lehen ere etsipena hartu beharrean izan dela Espainia behin baino gehiagotan historian zehar. Esaterako, Portugal eta Gibraltar galdu zituenean, edota Dominikar Errepublika, Kuba eta Filipinak galdu zituenean. Eta neuk gaineratzen dut. Gauza ederra da familia handi bat sasoiko seme-alabez osatua denean, baina baita ere senide bakoitzak bizitzan zehar bere bidea hartu eta elkarrekin ondo konpontzeko bidea halaber egiten dutenean.

ASTEBURU HONETAN BILBON LEHIATUKO DIRA ESTATU MAILAKO TXIRRINDULARI ONENAK

Ikasturte amaierako jaiak

Egape ikastolako eta Presentación de María ikastetxeko ikasleek agurtzear dute ikasturtea. Aurtengoari behar bezalako amaiera emateko, larunbatean ospatu zituzten zegozkien jaialdiak. Guraso, irakasle eta ikasleek giro ederrean parte hartu zuten herriko ikastetxeek antolatutako ekitaldietan. Orain ikasleei udako oporraldiaz gozatzeko unea iritsi zaie. Ondo pasa!

Egaperen Lehen Hezkuntzako eraikinean lagun ugari bildu zen. Une hunkigarririk ere ez zen falta izan. DBH amaitzear duten ikasleek, haien lehendabizikoa eta azkena izandako irakasleen eta ikastolako zuzendariaren eskutik, diploma bana, argazkia eta agurra jaso baitzituzten. Ekitaldirako denak ezin hobeto atonduta agertu ziren eta gurasoak ere bertan zituzten. Afaritarako ere 300 lagun inguru bildu ziren bertako frontoian.

Urtero, jaialdira bertaratzen direnen artean, ikasle ohiak aipatu behar. Bertatik osteratxo bat egiteko tartea hartzen dute. DBH abian jarri zutenean egiten hasi ziren ikastola egunа. Ordutik jaialdia indartzen joan da eta egun, bizi-bizi dago.

Presentación de Maríakoek egun berean ospatu zuten jaialdia. Egunari meza saioarekin hasiera eman zioten. Aurtengoan ere jokoek ez zuten hutsik egin. Ezta otorduek ere; haurren bazkaria izan zen lehenik. Arratsaldean Ama-Lur taldeak prestaturiko tailerra izan zen; sorginen ingurukoa.

Modu batera edo bestera, ikasleei liburuak alboratu eta jada, udako oporraldiaz gozatzeko unea iritsi zaie. Ondo pasa!

Goizetik gauera bitarte ekitaldi mordoa antolatu zen Egape ikastolan.

Presentación de María ikastetxean oso giro ona izan zen egun osoan zehar.

Makilatzeko eta marrazteko tailerrak ireki zituzten goizean goizetik.

Txaranga doinu eta askariarekin bukatu zen aurtengo jaialdia.

Ikasleek prestatutako dantza eta antzerki saioak ikusgarriak izan ziren.

Argazkiak © *Xabier Ubeda*

Guraso eta ikasleek ikasturteari larunbat honetan emango diote azken agurra.